

HIRIKO SARBIDEAK DIRELA-ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA DONOSTIAKO UDALAK EGINDAKO LANKIDETZA HITZARMEN ETA MARTUTENEO ERROTONDARI BURUZKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Hiriko sarbideak direla-eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak egindako lankidetzaz hitzarmen eta Martuteneko errotondari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko urriaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, hiriko sarbideen ingurukoa, alkateak eta Bide Azpiegituretako diputatuak sinatu zuten 2016ko maiatzaren 6an. Bi batzorde eratu ziren, erakunde arteko batzordea eta teknikarien batzordea: lehenengoak, gutxienez, sei hilabetero egin behar du bilera eta bigarrenak, gutxienez, hiru hilabetero.

"Donostiaren Aldeko Hitzarmenak", Eneko Goia Lasok eta Ernesto Jose Gasco Gonzalok sinatutakoak, 7. orrialdeko 6. puntuan, hauxe dio: "Gipuzkoako Foru Aldundiari hitzarmen bat proposatuko diogu Martuteneko bi mailatako errotonda... eraikuntzaren ardura hartu dezan...". Hau da, hitzarmen bat iragarri eta beste bat egin zuten.

Aurreko agintaldian, Foru Aldundiak proiektua egin zuela gogorarazi behar dugu, baina bi urte luze pasatu eta gero oraingo foru gobernua ez du ezer ere egin. Hedabideek Aldundiaren egoera ekonomikoa ona dela diote eta errepideetan egingo dituen proiektuen berri ematen dute, baina haien artean Martuteneko errotondaren birmoldaketa ez dago. Alkateak, beti bezala, ez du ezer esan gai honi buruz.

Pilar Arana delegatuak, batzordean, alkatea beti obra honen aldekoa izan dela adierazi zuen eta, denon harridurarako, "Donostiaren Aldeko Hitzarmenak" esaten duena ez zuela ezagutzen aitortu zuen. Berritoki ere, ohiko hitz politikak, seriotasun gutxi eta batera konpromisorik ez.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio "Donostiaren Aldeko Hitzarmenean" Martuteneko errotondari buruz adierazten dena bete dezala.

Donostian, 2017ko urriaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia